

IRAGAN HURBILAREN LERROA

HARI BATEK ZEHARKATZEN DU HISTORIA, fina batzuetan, lodia besteetan. «Zuk entzuteko, nire hitzak mehetzen dira batzuetan», idatzi zuen Pablo Nerudak. Kontalariak entzutea nahi du, inguratuta duten komunikabideek itxuraz hesitu duten diskurtso zahar bat sinpleki adierazi nahi duela dio. Konplexua da, gero. Letra mehetzea, irudia sendotzea. Mezua laburragoa egitea. Euskadi Ta Askatasuna, ETA, 1958. urtean sortu zen gazteen belaunaldi batek hartutako konpromiso intelektualaren ondorioz eta erakunde hori bera gatazka politikoaren metodoak, borroka armatua iraungitzeaz zegoela konturatzen hasia zen. Horretarako, bide luzea egin beharra zegoen. Elgoibarko Txillarre baserritik, 2006. urtean hitzek Suitzara eta gero Norvegiara egin zuten hegan. Geldialdi bat eta, berriro ere, itzulera 2010ean.

Txillarre baserria, Elgoibar inguruan, ikono bihurtu zen, bakegintzan elkarguneak topatzeko ikono. Arnaldo Otegi (ezker abertzalea) eta Jesus Eguiguren (PSOE) izan ziren aktore nagusiak agertoki hartan, baina agertoki hura zabaldu egin zen eta PSE-EE, EAJ eta Batasuna alderdietako ordezkariak Loiolako Elkarrizketetan bildu ziren, gatazkari konponbide politikoa bilatze aldera. Hamabi bilera izan ziren Loiolako Jesusen Lagundiaren Arrupe zentroan, eta Eusko Ikaskuntza izan zen sustatzaile, aho batez. Elkarrizketa horien abiapuntua Batasunak (2004ko azaroan) Anoetan egindako proposamena izan zen; proposamen horren bitartez, negoziazio-estrategiako protagonismoaren kontzeptua aldatu zen, bi mahairen bitartez: mahai politiko bat, alderdi politikoekin, eta mahai tekniko bat, Espainiako Gobernuak eta ETAK gatazkaren ondorioei buruz hitz egiteko.

Loiolako elkarrizketak ondorio bat izan ziren; Rodriguez Zapateroren Gobernuak ETAREKIN hitz egiteko prozesua onartzearen

ondorioa. Espainiako Parlamentuak hitz egiteko baimena eman zion Gobernuari erakunde-ebazpen bidez 2005eko maiatzean eta, hainbat aldaketa egin ostean, Europako Parlamentuak berretsi egin zuen baimen hori, PPren eta Europako Alderdi Popularraren oposizioarekin. ETAk 2003ko maiatzean egin zuen hildakorik eragin zuen azken atentatua, eta 2005eko ekainean ordezkari politikoen aurkako erasoak bertan behera utziko zituela iragarri zuen; horren ondoren, ETAk aldebakarreko su-etena iragarri zuen 2006ko martxotik 2007ko ekainera bitarte.

Loiolako Elkarrizketekin batera, 2006ko irailetik azarora bitarte, ETAREN eta Espainiako Gobernuaren ordezkariak hainbat bilera egin zituzten Genevan eta Oslon, Norvegiako Gobernuaren eta Suitzako Henri Dunant zentroaren (HDC) babespean. Urte hartako urriaren amaieran akordioa lortzen saiatu ziren, baina hurrengo asteetan desadostasunak sortzen hasi ziren berriro. ETAk elkarrizketekin jarraitzeko aukera baldintzatu zuen 2006ko abenduaren 30ean, Madrilgo aireportuan atentatua egin zuenean; su-etena de facto urratu zuen atentatu harekin, lehen aldiz inolako jakinarazpenik egin gabe. Hurrengo hilabeteetan ere bildu ziren solaskideak nazioarteko bitartekarien zaintzapean, baina bide hura agortuta zegoela baino ezin izan zuten egiaztatu. Gatazka negoziatioaren bitartez konpontzeko azken ahalegina izan zen hori. Alabaina, haria tenkatu bai, baina ez zen eten.

Teresa Whitfield-ek hispaniar eremuko gatazkak oso ongi ezagutzen ditu, bertatik bertara bizi izan dituelako hainbat erakundetarako barne-txostenak egin ahal izateko. Frantziako eta Suitzako urak batzen dituen Genevako Leman aintziraren ertzean bizi da, baina New York ere izaten du bizileku, munduko ekonomiaren eta kulturaren nodoa. Gobernuz kanpoko International Crisis Group (ICG) erakundearen zuzendariaren ondokoa izan da; erakunde hori 1995. urtean sortu zen gatazka armatuen konponbiderako eta prebentziorako. 2015eko urtarilean hartu zuen kargu hori –ez zuen luzaro jardun bertan–, euskal gatazkari buruzko azterlana bukatu ostean; azterlan hori liburu batean argitaratu zuen Londreseko argitaletxe batekin, hainbat hilabete lehenago: «Endgame for ETA» (Jokoaren amaiera ETARENTZAT). Bakegintzarekin lotutako erakundeetan egindako jardunez betetako curriculum iza-nik, liburua idazteko erabakia hartu zuen Centre for Humanitarian Dialogue (CHD) zentroaren –Henri Dunant Centre zentroa ere esaten zaio– eta Nazio Batuen arteko zubi-lana egiten ari zela.

Henri Dunant Centre zentroak Genevan du egoitza eta bitartekari-tza-lanak egiten ditu gatazka armatuetan; 2005. urtean jada, ETak eta Jose Luis Rodriguez Zapateroren Gobernuak zentro hori adostu zuten beren arteko eztabaida-prozesua bideratzeko. Bi solaskideen oniritzia jaso zuen. Zapaterok aipatu izan du Javier Solana alderdikideak irado-ki ziola zentro hori; Solana Europar Batasuneko segurtasun-gaietarako Goi Komisarioa zen garai hartan, NATO erakundearen idazkari nagusi izan ostean. Harrezkero, eta Barne Ministerioan eta Espainiako zerbitzu sekretuetan ohikoak izaten diren prentsarako filtrazioak direla eta, Henri Dunant zentroa ETAREN eta Gobernuaren arteko kontaktuen berri ematen zuten analisten aztergai izan da.

Whitfieldek liburua argitaratu zuen arren, ez zen ez idazlea, ezta ohiko kazetaria ere. Txostenak idazteko erraztasun handia zuenez eta gaia ongi ezagutzen zuenez, literaturaren abenturari ekin zion ausar-diaz. 2010. urtean, ETARI buruzko liburua argitaratu baino hainbat urte lehenago, bideratzaileei zuzendutako eskuliburu bat idatzi zuen United States Institute of Peace (USIP) erakundeak eskatuta; eskuliburu horretan, gatazka armatuak konpontzeko ahaleginetan mundu osoan lanean ari ziren kontaktu-taldeak eta bitartekarien errepassoa egin zuen. Bitartekari-lanetan bideratzaileek egin behar dituzten zeregin nagusiak identifikatu zituen Whitfieldek, hau da, bakegintzarako teknika modu-ko bat eman zuen.

Atzetik lan hori guztia eginga zuela, Whitfieldek euskal gatazkan 2014. urtera bitarte diskrezio osoz lan egin zuten bideratzaileen izenak argitaratu zituenean «Endgame for ETA» liburuan, haren sinesgarritasuna guztiz justifikatua zegoen. Bazekien zertaz ari zen. Eta zioenez, azken hamarkadan, intentsitate-maila handiagoan edo txikiagoan, gatazketan espezializatutako hainbat erakundek jardun zuten ETAREN eta Espainiako nahiz Frantziako gobernuen artean bitartekari-lanetan, besteak beste, garrantzitsuenak aipatzearen, Centre for Humanitarian Dialogue (HDC), Berghof Foundation eta Conciliation Resources (CR).

Orain badakigu Norvegiako Gobernuaren ekarpena eta konpromisoa funtsezkoak izan zirela gertakari horietan guztietan. ETAREN hiru ordezkari hamabost hilabetetik gora egon ziren Norvegian, Espainiako ordezkariak noiz iritsiko zain, baina ez zen sekula iritsi. Norvegiako Gobernuak Europako beste edozein gobernuak ordura arte egindakoa baino askoz ere gehiago egin zuen bitartekaritzaren ahalbidetzeko.

Izen bereziak aipatu behar dira. Johan Vibe funtzionario iharra zen, ile gutxi eta Art Garfunkel musikariaren antza zuena, eta Norvegiako Erresumako Kanpo Zerbitzuan lanean hasi zenean 26 urte baino ez zituen. Haren karrera diplomatikoa gatazkekin lotutako espazio opa-kuak kudeatzera bideratuta zegoen, antza. 2005. urtetik 2009. urtera bitarte, Kanpo Arazoetako Ministerioaren Bake eta Adiskidetze Departamentuko zuzendariondoko nagusia izan zen, eta euskal gatazkari konponbidea bilatzeko lan egin zuen postu hori betetzen zuela. Harekin hartu-emanak izan zituzten euskal ordezkariak haren esamolderik ohikoena esaten gogoratzen dute: «Bai, bai, jakina, jakina».

Gerora, Norvegiako errege Herald V.aren exekutiboak konfiantzazko gizon hori jarri zuen Madrilgo enbaxadan. Norvegiaren Washingtongo enbaxadatik iritsi zen Madrilera; Washingtonen ez zuen postu zehatzik esleituta, baina hiru urtetik gora bizi izan zen han. 2012. urtetik 2016. urtera bitarte, Espainiako hiriburuan bete zuen kargua eta urte hartan Kolonbiara aldatu zuten; han, azkenean bete ahal izan zuen agindutakoa, Norvegiako Gobernuak Juan Manuel Santosen ekipoaren eta FAR-cen arteko bitartekari-lanetan esku hartzea, diskrezio osoz. Hain justu Madrilen egin ezin izan zuena euskal gatazkari dagokionez.

Bitartekari talde horietaz eta Norvegiako Gobernuaz gain, beste elkar-te bat ere aipatu beharko genuke nahiz eta ez den agertzen Whitfielden testuan, baina garrantzitsua izan zen, bereziki, ETAREN indarkeria amaiera egiaztatzeko batzorde bat sortu behar izan zenean. Dialogue Advisory Group (DAG) taldea zen, eta egoitza nagusia Amsterdamen zuen. Gaur egun, elkar-te horren webgunean irakur daitekeenez, IRAREN, ETAREN eta Kongoko hainbat talderen armagabetze-prozesuetan parte hartu du. Nicholas Stewart zen presidentea eta aholkulari garrantzitsuak zituen; aholkularietako bat Lakhdar Brahimi zen, Aljeriako Kanpo Harremanetarako ministro izandakoa eta, bestea, Wegger Strommen, Norvegiak Washingtonen zuen enbaxadorea. ETAREN su-etena monitorizatu zuen NEBAN elkar-te horretako hiru aholkularik parte hartu zuten; bik –Ram Manikkalingam-ek eta Fleur Ravensbirgen-ek– ofizialki eta batek –Juan Garrigues-ek– era ofiziosoan.

Nazioarteko bideratzaileek hainbat neurri hartzea gomendatu zioten garai hartan legez kanpo utzitako ezker abertzaleari blokeoa gainditzeko eta, bide batez, Loiolan abiarazitako prozesuan aurrera egiteko; izan ere, prozesu hori 2007ko maiatzetik etenda zegoen, ETA eta Espainiako

Gobernua azken aldiz bildu zirenetik. Hasierako txosten batean «Loiola 2» izena ere jarri zioten. Jarraitu beharreko eredia zen, eredu garrantzitsua izandako eraginagatik, Brian Currinek Hegoafrikatik ekarri zuena; Brian Currin berehala jo zuten protagonistatzat Espainiako komunikabideek. Currin 2003. urtean hasi zen Euskal Herrian bakea lortu nahian lanean. Irlandako prozesuan lan handia egin zuen baita Hegoafrikan ere, bera hangoa izaki; Nelson Mandela presidenteak izendatu zuen apartheidaren krimenak ikertu zituen Egiaren Batzordeko kide izateko.

Currinek elementu berritzaileak ekarri zituen legez kanpo utzitako eta kriminalizatutako ezker abertzaleak pairatzen zuen blokeoa gainditzeko. Hegoafrikako UDF (Fronte Demokratiko Batua) alderdiaren esperientziatik abiatuta ekarri zituen. ANC Hegoafrikako Kongresu Nazionala klandestinitatean egon zen 1960tik 1990era bitarte, eta egoera horrek legezko plataforma bat sortzea eragin zuen, UDFa, ehunka kolektibo, elkarte eta talde bildu zituena. UDFak politika egin ahal izan zuen, politikaren potentzialtasuna agertu eta ezkerreko taldeen lelo iraunkor horretan aurrera egin ahal izan zuen, hau da, Gramsciren ildoari jarraikiz, indarrak batzea hegemoniak iraultzeko. UDFa ere legez kanpo utzi zuten, eta haren errautsetatik Masen Mugimendu Demokratikoa (MDM) sortu zen. Garai bertsuan, Afrikako kontinentearen iparraldean, ETA Espainiako Gobernuarekin negoziatzen ari zen, Felipe Gonzalez presidente zela. Aljerren izan zen, 1989an. Urtebete geroago, Mandela espetxetik atera zen.

Ezker abertzalea antzeko ekimenak sustatzeko ahaleginetan ari zen Herri Batasuna legez kanpo utzi zutenetik. Baina setio judiziala gero eta sendagoa zen, eta espektro abertzale guztia utzi zuten legez kanpo, 1980ko hamarkadako maxima kontrainsurgente bati jarraikiz: «umetxo bere esnetan itotzea»; bestela esateko, borroka politikoa posizio-borroka bihurtzea. Komunikabideak itxi zituzten eta alderdiak, elkarteak, gazte-elkarteak, elkartasun-taldeak, hauteskunde-bazkunak eta abar legez kanpo utzi zituzten. Hamarkada askotan lehen aldiz, euskal preso politikoen «baita erbesteratuen ere» ehuneko handi batek ez zuen ETArekin loturarik.

Currinen kontakizunak eta haren bultzada mediatikoak eragin nabarmena izan zuten euskal gizartean. Elkarrizketak, hitzaldiak, jarraipena eta sare sozialen estaldura. Currinen mugimenduei esker, ohiko tokietan –bereziki, Genevan– egiten ari ziren urrats diskretuak ikusgai

jarri ziren. Itxuraz, *nihil novum sub sole* zen nagusi, hau da, «berririk ez eguzkipean». Errealitateak, ordea, sakoneko aldaketak iragartzen zituen. Ezker abertzalea fase-aldaketarako prestatzen ari zen. Aldaketa iraultzailea izango zen, lehen aldiz ekingo baitzion bake- eta burujabetza-prozesuari alde bakarretik, kolonialismoaren ondoko garaiko negoziazioaren formatu klasikoa alde batera utzita. Baina hamarnaka bilera eta kontaktu egin beharko zituzten oraindik askotariko eragileekin.

Agertoki berri honen lehen harri publikoa 2009. urteko azaroan aurkeztu zen, bi tokitan aldi berean: Altsasun, ezker abertzalearentzat leku sinbolikoa, 1977. urtean Herri Batasuna herri horretan aurkeztu zelako, eta Venezian; Europako kazetari ugari izan ziren itsas gainean eraikitako hiri europarrean. Euskal mahaia 110 militante historikok osatzen zuten, eta Italiakoa, aldiz, ezker abertzaleko ordezkariak, DTP kurduaren presidente Emine Ayna andreak eta Sinn Feinen kanpo-harremanetarako arduradun Raymond McCartney jaunak; horietaz gain, bideo-proiektzioen bitartez Gerry Adams, PCKren presidente Murat Karayilan eta Arnaldo Otegi ere izan ziren bertan. Azken hori, hain justu, espetxean sartu berria zuten estrategia-aldaketa horren alde lan egiteagatik, estrategia soilik politikoaren alde. Veneziako konferentziaren amaierako hitzaldia Brian Currinek eman zuen. Gonbidatuen zerrendan azken hamarkadetako ezker abertzalearen aliatu klasikoak zeuden, irlandarrak eta kurduak. Batzuk bake-bidean zeuden, eta besteak gatazka armatu bete-betean. Altsasun, prozesu demokratikoaren aldeko adierazpena egin zuten, Irlandan edo Hegoafrikan garatutakoen antzera. Halaber, elkarrizketa-prozesu baten barruan, Ipar Amerikako senatarri Georges Mitchell jaunaren printzipioak onartzeko prestasuna ere adierazi zuten. Plan horri esker Ipar Irlandaren kasuan Ingalaterraren eta Irlandaren arteko akordioa lortu ahal izan zen. Printzipio horien arabera, aldeek gai politikoak konpontzeko bide demokratikoak eta baketsuak soilik baliatzeko konpromisoa hartzen zuten, eta prozesuan eragina izateko indarra erabiltzeari uko egiten ziotela esanbidez adierazi behar zuten. Batasunaren barne-eztabaidarako dokumentuan zehaztutako ildoari jarraikiz, parte-hartzaileek nabarmendu zuten «denborak arrazoa eman dion mugimendu politiko bat» dela ezker abertzalea, baina atsekabea adierazi zuten indarkeria eta gatazka armatua gehiegi luzatu zirelako: «indarkeria eta konfrontazio armatuko egoera inork nahi baino gehiago luzatu da»; hortaz, egoera hori gainditzea lehenta-

sunezkotzat jo zuten. «Aldaketa politikoa atzeraezin egitea dugu erronka», tresna bat baliatuta: prozesu demokratikoa. Hartara, ezker abertzaleak bere erabakia alde bakarrekoa zela nabarmendu zuen lehen aldiz. Ezker abertzalearen borondatea zein zen adierazi ostean, zein printzipio onartzen zituen zehaztu zuen eta euskal eta nazioarteko komunitateari helarazi zizkion. Lehena nabarmendu egiten zen; honela zioen: «konponbide demokratikorako prozesuaren erreferentzia bakarra bide baketsu eta demokratikoetatik adierazitako herri borondatea da, bai prozesua bera martxan jartzeaz konfiantza izateko, bai hark garapen egokia edukitzeko, bai eta herritarrek beraiek berretsi beharko dituzten akordioak erdiesteko ere. Euskal herritarrek, prozesuan zehar, une bakoitzean era aske, baketsu eta demokratikoen bidez hartuko dituzten erabakiak errespetatuko dituela zinez hitza ematen du ezker abertzaleak, gainerako eragileek egin beharko luketen bezalaxe».

Barne-eztabaidan, eta negoziazio-prozesuaren ezaugarriei buruzko hainbat zirribororen bitartez, ezker abertzaleak bere erronkaren aukerak aztertu zituen. Besteak beste, blokeoa egon zitekeela sumatzen zuen, baina ez hainbesterainokoa. 2011ko urriaren hasieran, ezker abertzaleak –legez kanpo oraindik ere– lau orrialde eskaseko gidoia banatu zien militanteei, zein jarrera hartu zuen argitzeko. Ez zuen izenbururik; estrategia-aldaketaren berri ematen zuen, besterik gabe. Negoziazioari buruzko atalean, sor litezkeen bi agertokiak aipatzen zituen:

«Hitzarmen demokratiko integratzaile duna “zen lehenengoa”. Estatuak, errealtate nazioaniztuna onartu eta nazio nahiak errespetatuz, alde anitzeko elkarrizketa eta negoziazioan etorkia luketen lurralde egiturari lotutako erreformak egitean bat etorriko balitz emango litzatekeena».

«Hitzarmen demokratikorik gabekoa “izan zitekeen bigarren aukera”. Elkarrizketa eta negoziazio prozesuak irekita, baina hitzarmen erabakigarriko alorrak Estatuak blokeatuta izango litzatekeena. Prozesua, beraz, alde bakarretik garatu beharko litzateke, gehiengo sozial eta politikoa lortuz, Euskal Herrian esparru juridiko-politiko berria galdutako duen Demokrazia Berri bat abiaraziz».

Orduan jada akordiorik gabe aurrera egin beharko zutela hipotesi gisa aurreikustekak analisi-gaitasun nabarmena adierazten badu ere, ikuspegi hori sakon-sakonean praktikan barneratzeak –azkenean armagabetzearen korapiloa askatzeko egingo zen moduan– denbora eta lan handia eskatuko zuen.